

UROLA KOSTAKO HITZAGUKA

UROLAKOSTA.HITZA.EUS

OSTIRALA, 2023KO

MAIATZAREN 26A

XX. URTEA, 5.380. ZENBAKIA



FESTA GIROAN DATOR ISILTASUNA

Zarauzko Skasti taldeak ibilbideari agur esango dio bihar, Hiruputzu gaztetxean emango duen kontzertuaren bidez. Azken festaren ostean, isildu egingo dituzte ahotsak nahiz doinuak //3

URTZIOTEIZA

Lidia Juaristi
Logopeda · Neurologopeda

Mintza logopedia

Gereziondo plaza, 1 behea · Zarautz · 943-00 04 16
www.mintzalogopedia.es

M-28

Udal eta foru bozak izango dira igandean, eta Urola Kostako 11 herrietan, 59.522 herritar daude botoa ematera deituta //2

Trikiti Eguna
egingo dute bihar
Azkoitian,
bigarrenez

Inguruotako trikitilariak elkartu, eta egun osoko festa egingo dute, goizetik gauera bitartean //6

BIYONA
BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK



San Juan auzoa, 16 | AZKOITIA
943-85 21 10

Geltoki bidea, 1 | ZARAUTZ
943-13 50 16

Santiago auzoa, 12 | ZUMAIA
943-14 34 43



UROLA KOSTAKO UDAL HAUTESKUNDEAK 2019

Herria	EAJ	EH Bildu	PSE-EE	PP	Elkarrekin-Podemos	Herri plataforma	Errolda	Abst.
Aia	549 (6)	417 (5)	23 (0)	-	-	-	1.536	%34,11
Aizarnazabal	71 (1)	323 (6)	5 (0)	-	-	-	553	%24,59
Azkoitia	2.717 (8)	2.194 (7)	465 (1)	105 (0)	-	(AZKOITIA BAI) 369 (1)	8.507	%29,93
Azpeitia	3.025 (7)	4.489 (10)	252 (0)	-	-	-	11.240	%29,22
Beizama	-	-	-	-	-	(ABB) 61 (5)	114	%29,82
Errezil	-	255 (5)	-	-	-	(EG) 107 (2)	441	%15,65
Getaria	719 (5)	948 (6)	32 (0)	-	-	-	2.146	%19,43
Orio	1.151 (5)	1.257 (6)	312 (1)	-	-	(ORAIN) 277 (1)	4.403	%29,82
Zarautz	5.757 (10)	4.546 (8)	1.182 (2)	368 (0)	675 (1)	-	18.202	%29,70
Zestoa	793 (5)	1.083 (6)	36 (0)	-	-	-	2.763	%28,52
Zumaia	2.053 (7)	2.627 (9)	511 (1)	-	-	(Uzin) 81 (0)	7.695	%29,82
UROLA KOSTA	16.835 (54)	18.139 (68)	2.818 (5)	473 (0)	675 (1)	-	57.600	%29,19

Hautetsontzietan dago fokua

Gaur gauean amaituko da udal eta foru hauteskundeetan kanpaina • Urola Kostako 11 udalerrietan, guztira, 59.522 herritar daude botoa ematera deituta

-JULENE FRANTZESENA

Gaur gauean bukatuko da udal eta foru bozen kanpaina. Herri-
tar hainbatek erabakita du dago-
eneko zein alderdiri emango

dion botoa, beste hainbatek era-
bakitzeko dute oraindik ere, eta
beste batzuek ez dute bozkatu-
ko. Dena den, alderdiei bukatu
zaie herritarrek konbentzitzeko

eta bereganatzeko zuten legezko
tartea.

Herritarrena da, beraz, eraba-
kia. Igandean, 09:00etan zabal-
duko dituzte hauteslekuak eta
20:00etara arte izango dute he-
rritarrek dagokien mahaian
boza emateko aukera. Udal hau-
tetsiak erabakitzeko ez ezik, Gi-
puzkoako Batzar Nagusietarako
ordezkariak hautatzeko parada
izango dute boto emaleek.

Ikuskizun dago zer emaitza
izango diren igande iluntzean,
ikusteko dago 2019ko hautes-
kundeetako emaitzen joera erre-
pikatuko al den -goiko taulan
ikus daitezke orduko bozetako
emaitzak-. Ikusteko dago alder-
diek eutsiko al dioten azken lau
urteetan izan duten aginteari
edo aldaketak izango al diren.
Kanpainen inkestean hainbat
emaitz kaleratu dituzte hedabi-

deek eta erakundeek, eta Gipuz-
koan lehia estua aurreikusten
dute EAJren eta EH Bilduren ar-
tean. Herrietako inkestarik ape-
nas argitaratu dute, eta beraz, to-
kian-tokian sumatzen den giroa
izan daiteke iganderako iparro-
rratza.

Urduritasuna ere suma daite-
ke hautagaien artean. Kanpaina-
ko azeleratzailea askatuta, etxe-
ko lanak bukatuta, bakoitzak
bere mezuak ahalik eta bozgo-
railu gehienetatik zabaldua,
emaitzen zain gelditzea besterik
ez zaie geratzen. Eta badute ur-
duri egoteko motiborik, asko du-
telako jokoan eta ez dagoelako
alderdien esku emaitza; hein ba-
tean, herritarrek dute hautes-
kundeen giltza.

Udal eta foru hauteskunde
hauetan, guztira, Urola Kostako
59.522 herritar daude botoa
ematera deituta, Espainiako Es-
tatistika Institutuak emandako
datuen arabera: Aian, 1.573 he-
rritar; Aizarnazabalen, 573; Az-
koitian, 8.679; Azpeitian, 11.639;
Beizaman, 121; Errezilen, 491;
Getarian, 2.221; Orion, 4.599; Za-
rautzen, 18.794; Zestoa, 2.842;
eta Zumaian, 7.970.

Igande gauean argituko da le-
hen inkognita, eta beharbada,
leku batean baino gehiagotan
beste bat zabalduko da, politi-
kan ere beharrezkoak baitira, as-
kotan, matematikak.

**BOZEN
BIHARAMUNEAN,
EGUNKARI BEREZIA**

📖 📺 📽 📷

M-28

B BALEIKE

K KARKARA

erlO ERLO

MAXIXATZEN

UH UROLA KOSTAKO HITZA

UZTARRIA

ZH ZARAUZKO HITZA



Hautetsontziak udal eta foru hauteskundeetan. HITZA

Agur esateko azken festa

Skasti taldeak bere ibilbideari amaiera emateko kontzertua eskainiko du bihar, Hiruputzu gaztetxean • Hitzorduekin «gozatzeko prest» daude taldekideak

–MIREIA GALARZA BASTIDA

Apirilaren 11n iragarri zuen Skastik bere azken kontzertua emango zuela sare sozialen bitartez. Eta ez edozein lekutan, etxean baizik, taldea sortutako leku berean. Iker Iñigo Antxus taldekidearen arabera, «uda eta gero, aukerak aztertzen» jardun zuten, eta hasierako asmoa kontzertua atari zabalean egitea bazen ere, azkenean ezin izan dute ideia hori gauzatu. «Ez genuen nahi kontzertua eskusiboa izatea, edozein etortzeko modukoa baizik. Azkenean, hainbat faktore tarteko, Hiruputzu gaztetxean egingo dugu, formatu txikiagorain, baina beroagoan ere bai, ziurrenik», adierazi du taldeko abeslariak.

Horren aurrean, eta kontzertua gerturatzen ari den neurrian, «urduritasun puntua» sentitzen hasiak direla azaldu du taldeko beste abeslaria den Xabier Uzin Binok. «Kontziente gara azken-azkena dela, eta ez dakigu gure gorputzak nola erreakzionatuko

duen larunbatean oholtzara igo-tzen garenean», aditzera eman du. Bi abeslarien hitzetan, gainera, «azken» hitzak errespetu pixka bat sortzen die, ondoren zer etorriko den ez dakitelako.

Dena den, «gogoz eta gozatzeko asmoz» daudela adierazi dute Antxusek eta Binok. Gozatzeko gogoz daude, noski, sarrera guztiak agortuta utzi dituzten herri-tarrek. Abeslarien hitzetan, «zaila» egin zitzaizkien edukiera zehatz bat jartzea, baina kopuruak kopuru, gaineratu dute ez dela «hainbeste jende» geratu sarre-rik gabe. «Esan daiteke egon nahi duten gehientsuenak izango direla larunbatean gurekin, eta pozik gaude horregatik», azaldu dute.

Kontzertua Arraio irratia- ren 17. urteurrenaren barruan kokatu dago, eta Uzin eta Iñigoren arabera, «festa bat» izango da egun hori. Arraiokide batzuk musika jartzen egongo dira, eta Jikuri taldea eta hainbat DJ ere batuko dira jaialdian. «Azken

bost urteetan, gainera, taldeko bi Arraioko kide ere bagara. Horregatik, uste dut ilusioa ere egin digula beraien urteurrenean kontzertua eskaintzeak», dio Binok. Kontzertua Hiruputzu izatea ere polita dela adierazi du Antxusek: «Leku berri batean izan-

«Egon nahi duten gehientsuenak izango dira, eta pozik gaude horregatik»

go gara, baina gauzak zer diren! Gure amaierak beraien hasiera- rekin bat egingo du». Horrez gain, diskoen aurkezpenak nahiz kontzertuak gaztetxean egiteko inoiz arazorik ez dietela jarri ere adierazi du.

Esentzia bera

2005ean hasi zuten euren ibilbi- dea Skastiko kideek, Astin futbo- lean jokatzeko zuten nerabe bat- zuek futbolaz harago zihoan zer bait elkarbanatzen zutela

ikusituz. Antzeko ezine- gonak zituztela eta, erdi txantxe- tan, musika taldea sortu behar zutela iradoki zuen haietako ba- tek. Hasierako txantxa hura es- pero baino serioago hartu eta lo- kalean entseatzen hasi ziren.

Harrezkero, ia hogeitaz igaro dira, hamazazpi zehatzago esa- teko, eta «gauzak asko aldatu» badira ere, funtsean «berberak» izaten jarraitzen dutela adierazi du Uzin. «Hasieran, musika egin nahi zuen lagun talde bat zen Skasti, eta hamazazpi urte geroago, ez da aldatu hori. Musi- kari dagokionez, agian egon da bilakaera bat, gure erreferen- tziak ere ez direlako beti berdi- nak izan», gaineratu du. Azken biran, gainera, «hasierako esen- tzia» berreskuratu dutela zehaz- tu dute bi abeslariak, eta horre- kin eman nahi diote amaiera la- runbatean.

Zortzi musikaririk osatzen dute Skasti, baina asko dira horien «orbitan» sartu eta aterak direnak. Eskertzeko izenei buruz galde-

tuta, «zerrenda amaigabea» dela azaldu dute: jai batzordeetako antolakuntzako kideak, gazte- txeetako jendea, diskoetako aza- len egileak, kamiseten diseinuak egin dizkietenak, tekniko guz- tiak, kamisetak saltzen aritu di- ren kuadrillakoak... «Batzuk modu profesionalen eta beste- ak ez hain profesionalen, baina guztiek egin dute ekarpena tal- dean, eta oso eskertuta gaude», azaldu dute. Bereziki izen bat nabarmendu nahi izan dute: Ju- len Portillo. Biek garbi esan dute «laguntza handia» eman diola Portillok taldeari Skasti energia gutxiarekin zegoen momentuan. «Gauza asko egin ditu, eta talde- ari amaiera duina ematen diogu- la bermatzen lagundu digu», azaldu dute taldekideek.

Atsedenerako unea

Etorkizunari begira jarrita, abes- lariak garbi dute: «Urte luzez ibili gara elkarrekin, eta momentu honetan atsedenera hartzeko garaia da. Gustura hartuko dugu hori». Hori horrela izanda, musikari dagokionean, «epe motzean behintzat» ez dutela elkarrekin joko nabarmendu dute. «Dena den, kuadrillakoak ginen Skasti sortu aurretik eta taldeak iraun duen bitartean, eta aurrerantze- an ere hala izango gara. Lotuta gaude zentzu horretan», adie- riz amaitu dute abeslariak.

Irratsaioak zuzenean Arraioko gela arrosatik

Arraio irratia 17 urte bete zi- tuen aurreko larunbatean, maiatzaren 20an, eta urteurre- neko ospakizunen barruan es- kainiko du agurreko kontzer- tua Skasti musika taldeak. Ho- rrekin batera, hasiera batean, gaurko beste emanaldi bat ira- garrita zeukaten, Sofa eta Gi- rarnice taldeena, baina azkenean, atzeratu egin behar izan dute, taldekide baten osasun arazo- engatik.

Urtemugaren harira, Orokie- ta Herri Eskolako ikasleek Arraio irratiko gela arrosa be- rritik egingo dute gaur irra- tsaioa, 10:00etatik aurrera; ikasturte osoan zehar irra- tintza lantzen dute, eta Arraio- ko uhinetan zabaltzen dute be- ren saioa.

Arratsalde partean, berriz, Arrosa sareak ekoizten duen Zebrabidea magazina egingo dute Arraio irratitik zuzenean, 16:00etatik 18:00etara.



Skasti musika taldeko kideak, beren entsegu lokalean. URTZI OTEIZA

Iribar eta Izarri iritsi dira XI. Floren Memoriala futbito lehiako finalera

Bihar jokatuko dituzte ligako eta kopako finalak Getariako frontoian • Gure Txeruk gustura da txapelketak emandakoarekin, «arantzaxoa» ere gelditu zaien arren

-ONINTZA LETE ARRIETA

Getaria

Bederatzi jardunaldi jokatu ondoren, iritsi da azken txanpara XI. Floren Memoriala futbito txapelketa. Bederatzi talde aritu dira nor baino nor, eta joan den asteburuan erabakita gelditu ziren finalak: nagusia, hau da, ligakoa, Iribarrek eta Izarrik jokatu dute; ligako hirugarren eta laugarren tokia erabakitzekoa, berriz, Haitzek eta Astillerok; kopako finalari dagokionez, Taxkok eta Abeta Berrik neurtuko dituzte indarrak lehian.

Finalak bihar jokatu dute, arratsaldean. Aurreneko hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte, 17:30etik

aurrera. 18:30ean hasiko da kopako finala, eta 19:30ean, berriz, ligakoa.

Eguraldiak lagunduz gero, frontoian izango dira hiru partidak; bestela, berriz, kiroldegian. Sari banaketaren ondoren, parillada izango da futbito txapelketako partaideentzat; euririk ez bada, Bista Onan, eta bestela, kiroldegi kanpoan.

Helburuak argi

Gure Txeruk positiboki baloratu du txapelketa, eta taldeek emandako erraztasunak goraiatu ditu bai partiden orduak adosteko, bai materiala atera eta jasotzerakoan, besteak beste. «Borondate ona izan dute, eta

txapelketa ondo joan da». Lehiaketari dagokionez, txapelketa «oso lehiakorra» izan dela azaldu dute antolatzaileek, «azken unera arte hiru talde egon direlako puntuz berdinduta ligako azken fasera sailkatzeko, eta bi golen aldearekin bakarrik gelditu delako azkenean talde hori kanpoan». Lehiaketa «oso gogorra eta polita» izan da, «kiroltasun handikoa», eta lesiorik ere ez dela izan nabarmendu dute.

«Arantzaxoa» ere gelditu zaie, ordea. «Aurten, txapelketa antolatu hasi ginenean, esan genuen gure nahia zela emakumeek ere parte hartzea lehiaketan eta beren partaidetza bultzatzea. Baina ez dugu helburua lortu,

nahikoa emakume ez direlako animatu taldea osatzeko, eta taldeek ez dutelako prestutasun handirik erakutsi animatu ziren emakume gutxi horiek beren taldeetan sartzeko eta talde misto gisa aritzeko», aitortu dute. «Gure Txeruk saiatu behar du emakumeen parte hartzea bultzatzen. Ez dakigu nola egin, baina ea zerbait bururatzen zaigun, eta batez ere, emakume gazteak animatzen zaizkigun Getarian futbitoan parte hartzera».

Kontuak kontu, bihar festa giroan amaituko dute txapelketa, eta ondoren, pixkanaka-pixkanaka, hamabigarren txapelketa prestatzeko parada izango dute Gure Txerukoek.



Orain urte batzuetako finala frontoian, artxiboko irudian. A. VENTAS

Salbideko Udaberri Festa antolatu dute auzoan biharko

ZARAUZT // Salbideko Auzo Elkartek Salbideko Udaberri Festa antolatu du aurten ere. Bihar 11:30ean abiatuko dute jaia Jaig dantza taldeak eskainiko duen *Euskal dantza* ikuskizunarekin, eta, ondoren, hamaiketako egingo dute. 12:00etan, berriz, hurrei eskainitako jolasak egingo dituzte, eta marrazkiak egiteko txokoa ere jarriko dute. 16:00etan auzoko mus txapelketa egingo dute hirugarrenez. Festa eguna amaitzeko, 19:00etan, Bat Bitan taldearekin erromeria izango dute.

Irrintzi tailerra emango dute ostegun arratsaldean

GETARIA // Euskal Astearen barruan, urtero irrintzi lehiaketa egiten dute Getarian, eta horren harira, irrintzi tailerra antolatu du udalak lehiaketa baino egun batzuk lehenagorako. Hain zuzen, ostegunean, ekainak 1, izango da tailerra Iturzaeta aretoan, eta izena asteazkena baino lehen eman behar da. Tailerra doakoa da, eta Amaia Garcia bermeotarrak eskainiko du. Aurrez, 19:00etan, irrintziari buruzko *Erraiak* dokumentala eskainiko dute, eta ondoren, solasaldia izango da Ekain Martinezen de Lizarduy zuzendariarekin.

Alprojaren obran izena emateko epea gaur amaituko da

ZARAUZT // Alprojaren Euskal Jailetako antzerkia prestatzen parte hartu nahi duenak gaur du izena emateko azken eguna. Aurtengo antzezlanak aukera eskaintzen du denbora libre gutxi daukatenez ere parte hartzeko. Antzezteaz gain, eszenografia edo dantza muntatzeko ere ongietorria izango da jendea. *Alproja.euskaljaia@gmail.com* helbide elektronikora idatzi behar da, edo nahiago duenak, <https://labur.eus/LoI4q> atarian formularioa bete dezake.

Txaparrotan txapelketan izena emateko epea zabalik da

-JABI GONZALEZ TOSTON

Zarauzt

Txaparrotan hondartzako eskubalo txapelketan parte hartu nahi duten LH3tik DBH2ra bitarteko haurrek dagoeneko eman dezakete izena. Astearte- an zabaldu zuten aurre inskripzio epea, eta astebete barru, maiatzaren 30ean, asteartearekin, itxiko dute. Txapelketa uztaileko lehenengo bi egunetan –asteburua da– jokatu

dute benjamin, kimu eta infantil mailatan banatuta. Gainera, talde mistoak osatzeko aukera izango dute haurrek.

Halaber, antolatzaileek ohartarazi dute taldeek ez dutela ordainketarik egin behar onartuak izan arte. Behin onartuta, bi eguneko epea izango dute 50 euroko diru sarrera egiteko. Horrez gain, jakinarazi dute zortzi partidetik gorako taldeetan jokalaria gehigarri bakoitzeko 5 euro

gehiago ordaindu beharko dituztela. Rural Kutxako kontu korronte honetan egin beharko dute ordainketa izena ematen dutenek: ES97 3008 0181 3545 1127 3924.

Helduen txapelketa

Haurren txapelketarako izen emate epea itxi eta hurrengo egunean zabalduko dute DBH3tik gorako izen ematea; maiatzaren 31n, alegia. 09:00etatik

aurrera egin ahaliko dute, ekainaren 4ra arte –igandea da–.

Haurren izen ematean bezala, taldea onartua izan ondoren

Uztailaren 1ean eta 2an izango da haurren lehia, eta 8an eta 9an, helduena

egin beharko dute ordainketa aipatutako kontu korrontean; 65 euro ordaindu beharko du talde bakoitzak.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, uztailaren 8 eta 9ko asteburuan jokatu dute DBH3tik gorako herritarrei zuzenduta dagoen txapelketa.



ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUAK BAKARRIK ESKAINTZEN DITU ZERBITZU INTEGRALA

- Beilatokia eta errauskata-labea instalazio berean
 - Eraikin berria, modernoa eta eraginkorra
 - Areta intimu eta argitsuak
 - Profesional berberak
- Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.

943 894 937 / 943 422 129 (24h)

memora.es

Abendafio Kalea, 2 - Zarauzt

m Zarauzt
Hileta
memora Zerbitzuak

Epaitegietako administrazio langileek bertan behera utzi dute greba

- NEREA URANGA

Hego Euskal Herriko Justizia administrazio langileek lanuzteak hasi zituzten joan den apirilaren 17an, lan baldintzak Eusko Jaurlaritzaren gainontzeko administratibetakoekin parekatzeko eskatuz. ELA eta LAB sindikatuak deituta hasi zituzten mobilizazioak, eta joan den astelehenean greba mugagabera jo zuten epaitegietako langileek. Asteazkenean, ordea, greba bertan behera uztea erabaki zuten bi euskal sindikatuak, Eusko Jaurlaritzak eskaintza «oso interesgarria» helarazi zuelako bezperan. Horrenbestez, lanuztea «eten» egin dutela azaldu dute sindikatuak, oraindik Jaurlaritzaren eskaintza hitzez bakarrik izan delako.

Eusko Jaurlaritzak Justizia administrazio langileei «%13ko soldata igoera» ezartzea proposatu du. Era horretan, Jaurlaritzaren gainontzeko administrazioetako langileen soldataren parekoa izango lukete epaitegietako langileek. Horrez gainera, sektoreak irabazitako beste eskubide batzuei eutsiko liekete langileek. Sindikatuak hutsune bat nabarmendu dute Jaurlaritzak egindako eskaintzan; auzitegi medikuntzako eta indarkeria epaitegietako langileentzat «aurrerapauso handirik» ez duela jasotzen proposamenak, hain zuzen ere.

Eskaintzaren berri emateko eta proposamena bozkatzeko, asteazken eguerdian asanbladak egin zituzten sindikatuak langileekin Bilbon, Donostian eta Gasteizen.



Hainbat langileek protesta egin zuten atzo Beheko Plazan, ELAk deituta. MIREIA GALARZA BASTIDA

Izurriaz geroztik eguneko zentroko zerbitzua murriztu izana salatu dute

Zumaiako Brankan «langileak falta» direla eta «ordutegia murriztu» dutela salatu du ELAk aste honetan • Udal Gobernuak dio azpikontratazioaren ondorio dela egoera

- MARIA MAYA MANTEROLA Zumaia

ELA sindikatuak deituta, elkarretaratzeak egin zituzten atzo eta asteartean Zumaiako Branka eguneko zentroko langileek, zerbitzuaren kalitatea ez dela bermatzen salatzen. Asteartean eguneko zentroaren aurrean bildu ziren, eta atzo kalera atera zuten aldarri hori; Beheko Plazan egin zuten protesta. Gaur-gauko, hobe erabiltzaile dituen Branka eguneko zentroak, eta sindikatuak emandako datuen arabera, hiru erizan dituzte hobe pertsona horiek artatzeko. «Komunera korrika eta presaka eraman behar dituzte, jatekoa emateko ere denbora gutxi dute...

Pandemia aurretiko egoerara bueltatzea eskatzen dugu, pertsona gehiago kontratatuta eta kalitatea bermatuta», adierazi du ELAk.

Sindikatuak gaineratu du «urteak» daramatzatela aldundiari nahiz tokian tokiko administrazioari ratioak hobe ditzaten eskatzen, baina hori egin beharrezko, «enpresa pribatuaren interesak» lehenesten dituztela salatu du. Beharrezko urratsak egin ditzaten eskatu die ELAk erakundeak: goizeko eta arratsaldeko txandan errefortzua jartzea eskatzen dute (10:30etik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara), eta ordu horiek langileen egutegian txertatzea. Horrez gain, zen-

troan hamabost erabiltzailetik gora daudenean, lanen antolaketa langileekin adostea nahi dute, eta beharrezko inbertsioa egitea kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko.

Udal Gobernuak azalpenak eman ditu lan gatazkaren inguruan. Argitu nahi izan du aldundiak azpikontratutako Eulen Sociosanitarios enpresaren esku dagoela Brankan kudeaketa, eta harremanetan jarri izan direla aldundiarekin eta enpresarekin, langileen eskakizunak onartu ditzaten eskatzeko. «Udal Gobernuak uste du gai hau zerbitzu publikoak azpikontratatzeko daktartzan arazoan adibide garbia dela», gaineratu dute.

Aholkularitza bulegoa jarri dute abian Zumaiako Etxape zentroan

- ARITZ MUTIOZABAL

Zumaiako Kontseilu Sozialistak aholkularitza bulegoa ireki du Zumaiako Etxape Zentro Sozialistan. Laneko Autodefentsa Sarearen eskutik jarri dute martxan, lanari lotutako zalantzak edota arazoak dituzten herritarrei laguntza emateko asmoz. Hasierako helburua hori bada ere, aurrera begira bestelako gai batzuen inguruan ere aholkularitza emateko baliagarria den «proiektua» izatea nahi dute.

Hileko lehen astelehenetan zabalduko dute bulegoa, goizez nahiz arratsalde; hau da, 11:00etik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Egun eta ordu horietan bertaratuta ezin dutenek 622 21 85 25 telefono zenbakira dei dezakete edo las.uro-lakosta@gmail.com posta elektronikora idatzi.

Bulegoa fisikoki Zumaiako kerkatuta badago ere, aholkularitza zerbitzua eskualde mailan antolatuta egongo dela nabarmendu dute; alegia, Urola Kostako herrietan beharrei erantzun nahiko lioke zerbitzuak.

Iragarki laburra

Salgai

Azpeitia. Damaso Azkue auzoko taberna bat salgai dago. Interesatuek telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 943-15 12 26.

Hileko zozketak • Saridunak

HITZAkide en TXOKOA

ZUBIMENDI, BEGOÑA [Azpeitia]

HITZA jarriko da harremanetan.

LEAKTIBAI Stand up Paddle

Lagun batentzako ibilaldia
Irteera eguna: 2023ko uztaialak 16
(Gutxieneko adina: 12 urte)
688 82 67 97
LEKITTIO
www.leaktibai.eus



ARREGI LOPEZ, MIRIAM [Azpeitia]
ESNAOLA BIAIN, JOSEBA [Azpeitia]

Hiru hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu parkera.

TXINDOKIKO ITZALA

Bi sarrera bikoitz

601 90 86 69 | 943-65 47 57
ABALI ZISKETA
info@txindokikoitzala.com
www.txindokikoitzala.com/eu/



IRURETA ALKORTA, LORAINA [Zarautz]
GURRUTXAGA MAYOZ, IDOIA [Azpeitia]

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu museora.

KAIN FAST + EKAIN ABENTURA

Ekainberri museo

Bi sarrera bikoitz
943-86 88 11
ZESTOA
info@ekainberri.com
www.ekainberri.com



Saria erabili ahal izateko **HARPIDEDUN txartela** aurkeztu behar da.

egin zaitez harpidedun!



Iaz egin zuten aurreneko Trikiti Eguna Azkoitian. ANE OLAIZOLA

Trikitiaren bilgune, bigarrenez

Bigarrenez egingo dute Trikiti Eguna bihar Azkoitian, eta iazko bidetik joko dute jaia egiteko • Irailean ospatu zuten iaz eguna, baina aurten, aurreratzea erabaki dute

– ANDONI ELDUAIEN

Bigarrenez ospatuko dute Trikiti Eguna bihar Azkoitian. Trikitigiro elkarteak eta Azkoitiko Udalak antolatu dute eguna, Um Blem Ble tabernarien elkarteak lagun-duta. Iaz piztu zuten herriko zenbait trikitilarik I. Trikiti Eguna sortzeko sugarra, eta aurten, trikitiaren festari jarraipena ematea erabaki dute, zenbait hilabete aurreratu; izan ere, iaz irailean ospatu zuten eguna.

Dozenaka trikitilarik beren doinuak herriko kaleetan zabalduko dituzte. Inguruko musikariak izango dira, batik bat, bihar

Azkoitian, tartean trikitilari eza-gunak, ikasleak eta horien maisuak. «Deialdi zabala» egin dute antolatzaileek, baina ikusteko dago zenbat lagunek parte hartuko duten. Hala azaldu dute Ibon Errazu eta Maialen Artetxe antolatzaileek. «Euskal Herriko trikiti eskola guztiei zabaldu diegu Trikiti Egunaren kartela. Hemen ingurukoek baieztatu dute beren parte hartzea, batik bat».

Egitaraua, iazko bidetik

Goizetik iluntzera arteko egitaraua prestatu dute aurten ere antolatzaileek. Iaz bezala, San Mar-

tin en elkartuko dira trikitilariak, eta hainbat taldetan banatuta, auzoz auzo ibiliko dira 11:30etik aurrera. Pare bat orduz ibiliko dira soinuak eta panderoa eskue-tan hartuta, horien hotsak herrian zabaltzen; izan ere, 13:30erako jarri dute hitzordua Julio Urkixo kalean, kalejira handia egiteko. Egunean parte hartzea animatutako trikitilari guzti-guztiak elkartuko dira batzokiaren parean, eta handik herriko plazara elkarrekin egingo dute bidea. Plazara iritsi orduko aterako dute taldeko argazkia.

15:00etan, herri bazkaria egin-

go dute plazan bertan. Ordea, Kultur Etxe azpiko arkupeetan jarriko dituzte mahaiak eurria bada. Iaz, zenbait herritarrek prestatutako paella banatu zuten bazkaltzeko, baina aurten catering zerbitzu bat hartzea erabaki dute. Gaur-gaurkoz, 150 lagun inguruk erosi dute bazkaria txartela. Aurten, iaz ez bezala, bi menu jarri dituzte aurretik: bat, helduentzat, eta bestea, 15 urtetik beherakoentzat. «Iaz ez ginen haurrekin oroitutako, eta aurten, umeentzako menua jarri dugu», azaldu dute. Gainera, antolatzaileek erabaki dute «zaputuko azoka errespetatzea» eta bazkaltzeko mahaiak muntatzeko lanak «azokako martxa amaitu orduko» egitea.

18:30etik 22:00etara bitartean, berriz, erromeria egingo dute plazan bertan. Bazkarian parte hartuko duten trikitilariekin egingo dute erromeria, horiek txandaka igoko baitira hainbat pieza eskaintzera plazan jarriko duten oholtzara. «Bazkaltzen sortzen den giroaren arabera» egingo dituzte erromeriarako taldeak. «Une horrek bere saltsa sortzen du. Ez da talde jakin bat arratsalderako ekarri eta haiek in-

erromeria egitea bezala. Postre edo kafe orduan erabakitzen da jendaurrean nor norekin arituko den. Iruditzen zaigu modu horretan hiru-lau pieza jotzeko aukera handiagoa ematen zaiela parte hartzaileei».

Era berean, azpimarratu dute gazteei begira ere «iniziatiba sortzeko bide» ematen duela antolaketa era horrek. «Saltsa hori gustatu egiten zaigu, ez da egituratutako ezer; era horretara planteatzen dugu guk Trikiti Eguna». Aurten, gauean ez da bestelako talderik izango erromeriarako. Honela azaldu dute zergatia bi lagunek: «Iaz, erromeria talde batek jo zuen gauean. Arratsaldeko jaia luzatu egin zitzaigun, eta horregatik, aurten kentzea erabaki dugu, arratsaldeko erromeria ordu bete luzatuz». Antolakuntzako bi kideek adierazi dute arratsaldeko erromeria plazan egitea aurreikusten dutela, baina eurria eginen badu Kontzejupean egingo dutela.

Hilabeteak aurreratu

Irailetik maiatzera aurreratu dute aurten trikitiaren eguna. Iaz, jaia egitea erabaki zuteneko urte erdia igarotzen zen, eta horregatik, irailean egin zuten I. Trikiti Eguna. Ordea, Azpeitian urrian eginen dute urtero Trikitigiro jaialdia, eta bi egunak elkarrengandik «gertu» egokitzen zirela eta, aurten Azkoitiko Trikiti Eguna aurreratzea erabaki dute. «Beldurra-edo sortu zen taldean jendea Azkoitiko eguna edo Azpeitiko aukeratzaren hasiko ote zen. Bileretan erabaki genuen bi egunak bata bestearengandik banatzea, eta hori erabakita, udaletxean galdetu genuen zer data aukera genezakeen. Orduan erabaki genuen Trikiti Eguna maiatzeko azken zapatuan egitea».

Hauteskundeek izango dute nolabaiteko eragina Trikiti Egunean. Iaz, esaterako, argazki erakusketa jarri zuten Kontzejupean, baina aurten Portaleburura eramatea zen antolatzaileen nahia. Etziko hauteslekuetako bat Portaleburu izango denez, aurten ez dute erakusketarik jarriko. Dena den, datorren urtean «trikitii munduko kultur ekarpenen bat» egitea aurreikusten dute.

Orain, eguraldi iragarpenen zain daude egunaren antolatzaileak eta festaz gozatu nahi duten herritarrak. Dena den, «eguraldi ona enkargatuta» dutela nabarmendu dute antolaketa taldeko bi lagunek.

Saridunak



HITZAkide en TXOKOA

SORAZU, UXUA (Zumaia)

Hitza jarriko da irabazlearekin harremanetan

KULTURA

LAGUN MINAK LIBURUA

Jon Benito idazlea Kritikaren Espainiako saria jaso berri du.



ZINKUNEGI UZKUDUN, KONTXI (Azpeitia)

Hitza jarriko da irabazlearekin harremanetan

KONTZERTUA

CHICA SOBRESALTO ETA SARA AZURZA

Maiatzaren 26an, ostirala 22:00etan, Azpeitiko Sanagustin Kulturgunean



Aizarnazabal, Herri Txikietako Gipuzkoako txapelaren bila

Ikaztegiarekin neurtuko dituzte indarrak finaleko bi partidetan • Joanekeo partida bihar jokatu dute Ikaztegiaren, eta ekainaren 16an izango da itzulerakoa, Aizarnazabalen



Aizarnazabalen areto futboleko taldea, entrenamendu bat hasi aurretik. UTZITAKOA

– MAILO OIARZABAL Aizarnazabal

Areto futboleko Herri Txikietako Gipuzkoako Txapelketaren lehen finala jokatu dute Aizarnazabalek eta Ikaztegiak.

Bi partidatara jokatu dute finala. Bihar, finalaren joanekeo partida izango dute Ikaztegiatara pilotalekuan, 18:30ean; finalaren itzulerako partida, berriz, ekainaren 16an izango da Aizarnazabalen.

Lehen aldiz antolatu dute Herri Txikietako Gipuzkoako Txapelketa helduen mailan, eta liga

jokatzea zen sustatzaileen hasierako asmoa. Baina gizonetan bi taldek bakarrik eman dute izena, eta horrela, finala jokatu dute zuzenean horiek; emakumeetan, berriz, ez da talderik apuntatu. «Datozen urteetan herri txiki gehiago sartzen joatea» da antolatzaileen asmoa, eta era horretan, hasieran martxan jarri nahi zuten liga hori jokatu ahal izatea.

Festa giroan

Finalaren joanekeoaren bueltan «giro bikaina» sortuko da Ikazte-

giaren, eta festa kutsua izango du larunbat arratsaldeko hitzorduan.

Hain zuzen ere, 17:30ean elkartuko dira etxeko zaletuak plazan, eta Pako Belea konpartsa-koen erritmoan joango dira kalejiran handik pilotalekuraino. «Aizarnazabaldik ere espero da jendea, eta guztiak batuta, giro bikaina izango da harmailetan. Gainera, jatekorik eta edatekorik ere ez da faltako, etorkizunean oso txapelketa polita izan behar duenari bultzada emateko», gaineratu dute antolatzaileek.

Ekainaren 17an izango da Zestoako Ibilaldi Neurtua

– JULENE FRANTZESENA Zestoa

Zestoako Ibilaldi Neurtuaren 21. aldia prestatu du Agiro mendi klubak ekainaren 17rako.

Parte hartzaileek bi ibilbide izango dituzte aukeran Zestoako hitzorduan: luzea, 29 kilometrokoa, eta motza, 19 kilometrokoa. Bietan ala bietan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, herriroska.eus webgunean; ekai-

naren 14a izango da horretarako azken eguna.

Ibilbide luzeko parte hartzaileak 07:00etan aterako dira, eta motzekoak, 08:00etan. Ibilbidea Zestoan hasi eta bukatuko dute, eta tartean beste hainbat gailur eta bazter igaroko dituzte. Txangoan parte hartzeko 15 euro ordaindu beharko du herritar bakoitzak, eta trukean kamiseta bana jasoko dute partaideek.

Argazki rallyko lanik gustukoenak aukera ditzakete Arroabeen

– M. OIARZABAL Zestoa

Bederatzi sari banatuko ditu Ezkaizto auzo elkarteak joan den maiatzaren 14an egin zen Arroabeko Udaberriko III. Argazki Rallyko parte hartzaileen artean. Horieta bat da Arroabeko herritarrek aukeratutakoa, eta sari hori ebazteko bozketa martxan da azken egunetan Interneten.

Hain zuzen ere, igandera bitartean –hura barne– dute herritarrek Internet bidez argazki gustukoenen alde botoa emateko aukera. Sareko formulario batean jarri dituzte antolatzaileek lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak, eta herritarrek gustukoak dituztenak aukera ditzakete bertan. Guztiara, adin tarte desberdinak 11 lagunek parte hartu zuten hilaren 14ko Udabe-

erriko III. Argazki Rallyan. Hain zuzen, 16 urtetik beherako lau gaztetxok eta 16 urtetik gorako zazpi lagunek parte hartu zuten sariketan. Hilaren 21a arte izan zuten horiek guztiak beren lanak lehiara aurkezteko aukera, eta 55 dira, azkenean, aurkeztu diren argazkiak.

Bozketa itxitakoan boto gehien jaso dituen argazkiaren izen izango da aurtengo Arroabeko herri bozketaren saria.

Sari banaketa ekitaldia

Datorren astelehenean, maiatzaren 29an, jakinaraziko dituzte antolatzaileek rallyaren emaitzak.

Sari banaketa ekitaldia, berriz, ekainaren 2rako iragarri du Ezkaizto, 19:00etan hasita.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
merkeago HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

Agenda

Gaur, ostirala

Jaialdia

Azpeitia. Erresistentzia jaialdia. Gaztetxean. 17:00etan, *Estrategia A* debate programaren emanaldia; eta 22:00etan hasita, bertso saioa.

Antzerkia

Zumai. Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean ondutako *Barda* antzezlan, 20:00etatik aurrera, Aita Mari aretoa.

Bihar, larunbata

Jaiak

Zestoa. Pazko Jaiak, Aizarnan. 11:00etan, artisau postuak; 11:30ean, haurrentzako ekintzak; eguerdian, herriko dantzarien emanaldia; 14:00etan, txekor eta sagardo dastaketa; 18:00etan, Bardo konpainiaren ikuskizuna; eta egun osoan zehar, erakusketak Anbuko zelaian.
Azpeitia. Sanjuandegiko Umeen Eguna. 12:00etan, elkartu eta jolasak egingo dituzte; eta 14:00etan, bazkaria izango da.

Kontzertuak

Azkoitia. Pottors Ta Klito eta Esur Beltza taldeen kontzertuak, 22:30ean, Matadeixen.
Zarautz. Piano ikasleen kontzertua, 12:00etan, Modelon.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

Lander Uri



Azpeitia. Zorionak, Lander! Gaurko oso egun berezia da, 22 urte betetzen dituzulako, eta urtebetetze zorionsua opa dizugu Epelde-Bikendi familiak.

«Kontzertua errusiar mendi baten antzekoa izango da»

SARA AZURZA MUSIKARIA

Sara Azurza Sanagustin kulturguneko oholtzara igoko da gaur, 22:00etan, 'Hemen berrir' lehen lan luzea aurkeztera. Jarraian, Chica Sobresaltok emango du kontzertua.

-AITZIBER ARZALLUS

Azpeitia

Gaur gauean, soul ukitudun pop doinu leunez girotuko du Sanagustin kulturgunea Sara Azurzak (Donostia, 1997). *Hemen berrir* lehen lan luzea aurkeztuko du bakarlariak, 22:00etan hasita. Haren atzetik, Chica Sobresalto igoko da oholtzara.

Gaurkoa Azpeitian jotzen duzun lehen aldia izango al da?

Ez, aurretik ere izandakoa naiz, duela pare bat urte edo. Gainera, Sara Azurza izenarekin eman nuen lehendabiziko kontzertua izan zen, eta egia esan, oroitza-pen oso onak dauzkatz; leku ona da jotzeko.

Hemen berrir zure lehen lan luzea aurkeztuko duzu. Badira hilabete batzuk kaleratu zenuela. Zer moduzko harrera izan du?

Duela ia bost hilabete kaleratu nuen diskoa eta oso pozik nago izan duen harrearekin, batez ere hedabideetan. Lehenengo aurkezpen kontzertua otsailean eman nuen, eta orain, udaberri aldera, gehiago mugitzen hasi gara. Sekulako ilusioa egiten dit proiektu honekin hara eta hona ibiltzeak.

Zuretzat, artista gisa, zer esan nahi du zeure lehen lan luzea esku artean izateak?

Orain arteko ibilbidean mugarri bat izan dela esango nuke. Urte asko daramatzat musika munduan, beti amets egin izan dut neure proiektu propioa aurrera ateratzeari, eta ametsa betetzen ari naiz. Hala ere, esan beharra daukat gauza bat dela amestea, eta bestea dela egitea, eta ez garelako ohartzen horrelako lan luze bat hasieratik bukaerara egiteak daukan lanaz. Neuretzat, berriz, neure buruari artista



CECILIA ALVAREZ-HEVIA

izan naitekeela erakusteko modu bat izan da, nire proiektuari adarretatik heltzeko modu bat.

Oso gaztea zinen aurreneko aldia oholtzara batera igo zinenen. Horretara ere ohitu egiten al da bat?

Gurasoek beti esaten didate hitz egiten baino lehenago hasi nintzela kantuan. Umea nintzenetik nabil musikaren munduan, eta egia da oso gazte hasi nintzela oholtzara igotzen, baina beti beste artista batzuei laguntzera, eta orain esan dezaket gauza oso desberdinak direla beste bati la-

guntzea eta zeure proiektua defendatzea. Neure proiektuarekin gehiago gozatzen dut ohol-



«Diskoa kaleratzea nire proiektuari adarretatik heltzeko modu bat izan da»

tza gainean, baina presioa askoz handiagoa da.

Zure atzetik Chica Sobresaltok emango kontzertua Sanagustinen. Elkar ezagutzen al duzue?

Ez, nik badakit nor den bera, baina sekula ez gara aurrez aurre egon, eta horretarako ere aukera polita izango da gaurkoa. Chica Sobresalto estatu mailan hara eta hona dabil gaur egun, eta niretzat ohorea da tamaina horretako artista baten aurretik jotzea. **Zer esango zenieke gaur gaueko kontzertura joan edo ez zallantzan dauden horiei?**

Etortzeko, ziurrenik *Hemen berrir* lanarekin Azpeitin berriz ez naizelako izango, eta ondo pasatuko dutela, kontzertua errusiar mendi baten antzekoa izango dela.